

Alde handia zientzialarien eta herritarren artean, zientzia-gaiei buruzko iritzietan



Ikasle-talde bat Argonne Laborategiak ezagutzen. ARG.: ARGONNE LABORATEGIA CC-BY 2.0.

Zientzialariek eta herritarrek zientzia-gaiei buruz dituzten iritzia ez datoz bat, Estatu Batuetan egindako inkesta baten arabera.

[Pew Ikerketa Zentroak](#) egin du ikerketa, AAAS zientzia-elkartearekin batera, eta agerian utzi dute alde handia dagoela batzuen eta besteen ikuspuntuen artean.

Hamahiru gairi buruz galdetu diete, eta aldea bereziki handia da genetikoki eraldatutako elikagaiak jatearen inguruan: galdetutako zientzialarien % 88k uste du elikagai transgenikoak jatea segurua dela, eta, aldiz, herritarren % 37k baino ez du uste gauza bera.

Alde nabarmena dago baita ikerketetan animaliak erabiltzeaz edo pestizidekin hazitako elikagaien segurtasunaz duten iritzietan: lehenengoaren kasuan, zientzialarien % 89 eta herritarren % 47 dira aldekoak; eta pestiziden auzian, zientzialarien % 68k uste du janari hori segurua dela, baina herritarren artean % 28 soilik datoz bat haiekin.

Klima-aldaketan gizakiok dugun ardurak ere banatzen ditu batzuk eta besteak: zientzialarien % 87k uste du batez ere gure jardueraren ondorio dela, baina herritarren erdia ez dago ados horrekin.

Dena dela, aldea ez da beti norabide berekoa; batzue-

tan, herritarrek zientzialariek baino babes handiagoa eman diote ideia bati. Hori gertatu da, esaterako, itsasoan petrolio-zundaketak egiteari buruz duten iritzia-ekin (herritarrek % 20ko diferentziarekin dira zientzialariak baino aldekoak) eta astronautak espazio-egitasmoen etorkizunerako ezinbestekoak ote diren esatean (% 12ko aldearekin).

Hala eta guztiz ere, denek uste dute zientzian eta teknologian inbertitzea onuragarria dela herrialdearen aurrerapenerako eta gizarterako, nahiz eta aurreko galdeketa (2009an) baino ezkorragoak azaldu diren. ●

Distrazioak iragazten dituen neurona-zirkuitua identifikatu dute

Atentzioa non ez jarri erabakitzeke, garuna nola moldatzen den aurkitu dute: talamoko neurona-zirkuitu bat arduratzen da iragazki-lanak egiteaz.

Zehazki, talamoa inguratzen duen TRN izeneko neurona-geruza dago zirkuitu hori. Arreta eta zentzumenen prozesamendua kontrolatzen ditu zirkuitu horrek, eta saguetan egindako probetan identifikatu dute.

Hain zuzen ere, Francis Crickek 1984n proposatu zuen TRNak ate baten funtzioa beteko lukeela garunean; ate horrek erregulatuko luke zer informazio pasatzen den talamotik kortexera eta zein ez. Izan ere, kortexean prozesatzen eta interpretatzen da informazioa, baina, hara iristeko, zentzumenen bidez jasotakoak talamotik igaro behar du lehenengo.

Ordutik garatu diren teknikei esker, Cold Spring Harbor laborategiko ikertzaile-talde bat gai izan da frogatzeko Criccken hipotesia zuzena dela. Hipotesia frogatzeko, TRN eremuan proteina jakin bat inaktibatu dute: Erb24 —oso ugaria da TRN eremuan, eta aurretik egindako beste ikerketa batzuen arabera, Erb24 genearen mutazioek lotura izan dezakete eskizofreniarekin eta arreta-gabeziaren sindromearekin—.

Bada, Erb24 proteinarik ez zuten saguek arazo handiak zituzten arreta jartzeko eta distrazioak saihesteko. Ikertzaileen esanean, Erb24 proteinarik gabe, TRNaren eta kortexaren arteko konexioak sendotu egiten dira, eta, horrek TRNaren zaindarian asaldatzen ditu. *Nature Neuroscience* aldizkarian argitaratu dituzte [lanaren emaitzak](#). ●

Albiste gehiago
webgunean

